

**[b]**

**BARREN**

ELGOIBARKO ASTEKARIA

566. zkia.  
XIII. urtea  
2006ko martxoaren 31a

Iñaki Konde, triatleta

**«Etxekoei esker ateratzen  
dut entrenatzeko indarra»**



# Gremioen

# GIDA



## Aroztegiak

### **Biena**

Neurrira egindako lana  
Ermuaranbide, 16  
☎ 943 74 31 16

### **Etxekit**

Sukaldeak eta bainuak  
Antonio Arrillaga, z/g  
☎ 943 74 43 47

### **Garcia**

Aluminioa eta PVCa  
P. Muguruza, 30  
☎ 943 74 32 38

### **Imar**

Erreformak  
☎ 943 53 14 71  
☎ 646 90 55 64  
☎ 609 05 49 78

### **Lodoso**

Leihoak  
Sigmako industrialdea  
Xixillon 2-2. pabilloa 3. zenb.  
☎ 943 74 34 90

### **Soraluze**

Lcihoak-Armairu enpotratuak  
Santa Ana, 8  
☎ 943 74 36 34

### **Ulazia**

Aroztegia eta enbalajeak  
Santa Klara, 10  
☎ 943 74 05 47



## Proiektu eta erreformak

### **Estudios Arrillaga**

Errosario, 15 behea (Elgolbar)  
☎ 943 744 055/943 744 019  
Arragueta, 12 behea (Eibar)  
☎ 943 200 698



## Iturgintza, berogailua, gasa, eguzki energia eta klimatizazioa

### **Ongi**

Olaso Poligonoa,  
15-68 pabilloa  
☎ 943 74 28 80

### **Pagoaga**

San Antolin, 13  
☎ 943 74 02 79

### **Pagoerrot**

Herriko Enparantza, 10 behea  
MENDARO  
☎ 943 75 60 44  
☎ 659 33 43 23

### **Tellabide**

Azpilgoeta, 19 MENDARO  
☎ 943 75 50 62  
☎ 607 75 50 62

### **Zaldua**

Urasandi, 26  
☎ 943 74 05 30

### **Zubizarreta Instalazioak**

Ubitarte, 5 behea  
☎ 943 74 07 89  
☎ 650 58 61 44



## Igeltseritza

### **Antonio Markez**

Urasandi, 24  
☎ 943 74 34 18

### **E. Arandla**

Urasandi, 22 behea  
☎ 605 70 52 04



## Elektrizitatea

### **Aramar**

Morkaiko, 1  
☎ 943 74 12 80

### **Azpeleta**

San Frantzisko, 51  
☎ 943 74 12 38

### **Urzelai**

Santa Ana, 12-14  
☎ 943 74 13 76



## Pinturak

### **Biok dekorazioa S.L.**

Santa Klara, 26 behea ezk.  
☎ 943 74 15 52  
☎ 606 43 11 19-20

### **Ipintza**

Foruen enparantza, 4  
☎ 943 74 04 40/607 74 04 40



## Isolamenduak

### **Glas Control S.L.**

Olaso 27, 47. pabilloia  
☎ 943 74 30 94



## Indusketa lanak

### **Lekunberri Indusketak**

Indusketa eta Indusketa txikiak  
Lekunberri baserria  
☎ 943 74 20 98/629 42 56 32  
koldo@movistar.com  
www.excavacioneslekunberri.com



AMAIA GORROTXATEGI


Aupa bele:

Lehenengo egunean lagun on batek asko pentsarazi zidan esaldi bat irakurri zidan. Etxetik atera eta zenbatzen hasi nintzen: bat, bi, hiru, lau... Zu baino beltzago ziren hiru eta hartu berri nuen kafesnearen kolore beretsuko zortzi zenbatu nituen. Iruña kaleko 3. zenbakitik, "Latindenda" ondotik, Lehendakari Agirre kaleraino. Ehun metro gehienez jota ere.

Hemen inor ez da arrazista eta soilik kasualitatea da oraintxe hartu berri dudan metroko bagoian hutsik dauden bi lekuen ondoan bi gizon kolonbiar egotea. Ez omen dira integratzen, benetako arazoa hori dela dio jendeak. Mini-Latinoamerika sortzen ari direla, esaterako Bilbon, eta hori ez dela onartuak izateko bidea. Kalera, labanekin ateratzen dira, zertarako? Lapurretak asko igo dira, nola baina? Lana kentzen digute, nori eta guri!!! Beharbada egia da, aspektu batzutan kalteak sortu dituztela baina ezin ditugu guztiaren errudun bilakatu. Beraien kultura, ohiturak ahaztu ezin izatea delitua al da?. Akaso zure semea Aitor beharrean, Julio José deituko litzateke Bolivian jaioko balitz? Ez al zinateke igandeetan Euskal Etxera joango sagardoa edatera, Boisen biziko bazina?

Ea honek zerbait esaten dizun: "Gogoren kontra, egoerak behartuta, herria, sendia, etxea utzi behar duena ez da inmigrantea, erbesteratua baizik".

## ZOZOAK BELEARI...



AINHOA MENDIBIL

Uau!

Eskemak apurtu dizkidazu Amaia!

Orain artean ez nintzen sekula horrela pentsatzen jarri.

Baina halere, lehen bezala, berdina pentsatzen jarraitzen dut. Esaldiak ez dauka ezer ukatzeko; arrazoi osoa. Eta ez naiz ni izango gainera erbesteratua dela, inmigrantea dela edo dena delakoa izanda ere, hona etortzen edo ez utziko diona.

Kolorea nabarmendu duzu behin eta berriz, hori ei dute desberdina. Baina ez hori bakarrik.

Ez dira hemen bizi izan, ez dira hemengoak izan; gu ere ez gara han bizi izan, eta horregatik gara desberdinak. Nahi edo ez, koloreak baino lekuak, inguruak egiten gaituelako berdin edo desberdin.

Eta gauza da Amaia, leku batean egon, bestean egon, egunen batean (eta oraindik ez mesedez!) nire semea Bolivian jaioko balitz ez dudala uste Julio José deituko zenik; baina era berean, Boisen bizi eta domekan Euskal Etxean sagardoa edan ostean bazkaltzeko ogia erostera joango banintz, ez nuke euskaraz berba egingo.

Txarrena da, gure herritar bihurtzen ari diren horietako batek, herrian okindegi bat zabalduko balu, hemen ere ezingo nukela euskaraz berba egin. Edo akaso bai...

«Beraien kultura ahaztu ezin izatea delitua al da?»

AMAIA

«Koloreak baino, lekuak egiten gaitu berdin edo desberdin»

AINHOA



GUZTIOK DUGU ELKARREN BERDINA GUZTIOK EZBERDINAK GARELA.



Anonimoa

## Ttipi-ttapa, independentzian topa!

Bi urtekin behin gertatzen den bezala, badator Topagunea. Apirilaren 14tik 17ra Etxari Aranatzan independentziaz bizi den herria irudikatuko dugu, urte luzetan egindako lanaren erakusle, ttipi-ttapa egindako bidearen eta egiteke daukagunaren aldamikapena egingo dugu. Bakoitza bere eremuan burutzen duen lanaz gain, badago guztiok biltzen gaituen aldarria: independentziaren beharra eta horren oihartzuna. Topagunearen lau egunek egindako lanaren eta zentzu horretan gazteon indarraren erakusle izango dira, baina baita, jaja eta borrokaren alaitasuna lau egunetako ezaugarri bihurtuko dira. Etxarri estatu zapaltzaileen erreprezio gordinaren gaintik, eremu askea bihurtuko dugu, espazio liberatua, askea eta askatzailea. Euskal Herriaren eraikuntza gazte espazioen eraikuntza konpromisoarekin era autogestionatua gauzatzen dugu, auzolanaz gauzatzen dugu. Modu berean egingo dugu Gazte Topagunea, Euskal Herriko gazte mordoaren parte hartzearekin. Gu guztiok egiten dugun ekarpenarekin osatuko dugu Gazte Topagunea 06.

Topa egiteko eremu askea izango da Gazte Topagunea, mugekin gaintik topa egingo dugu gazteok Etxarri. Topaguneari buruz hitz egiteko, (guneak, egitaraua, kontzertuak...), datorren ostegunean, apirilak 6, arratsaldeko 19:00etan Kimetz Elkartean egingo den batzarrera gonbidatzen zaitugu. Gazte, animatu eta parte hartu!

**GAZTE TOPAGUNEA**

## Ordua da

Honez gero, badira hiru urte azken Udal Hauteskundeak ospatu zirela eta ordura arte, Elgoibarko bigarren indarra zena eta bera babesten genuen ehundaka herritarren eskubide zibil eta politikoak bertan behera gelditu zirela.

Hiru urte hauetan ehundaka ordezkariaren eserlekuak bahituta daude, Udaleko plenoetan parte hartzea ukatzen zaigu, azken finean, ehundaka herritarri herritar izatea ukatzen zaigu. Hori bai, tasak eta zergak ordaintzen jarraitzen dugu.

Duela gutxi, martxo erdialdean, Gasteizko Parlamentuak Alderdien Legea baliogabe uzteko eskaera onartu zuen. Hala ere, ezer gutxi egin dute, bat ere, ez esatearren, beraien esanetan "lege antidemokratiko" hau gairiduzteko, ehundaka herritarren pentsaera ez kriminalizatzeke.

Martxoaren 22an ETA erakunde armatuak erakutsi duen borondate onak esperantzarako ateak zabaltzen ditu. Urratsak emateko ordua da. Hitzetatik ekintzetara pasatzeko ordua da. Ehundaka herritarren eskubide zibil eta politikoko bermatuak izateko ordua da.

**ASIER ZENGOTTA - E-6069814-E**

## Apirilak 6, garena izateko bidean, baterajotze nazionala

Euskal ikasleok, kolektibo indartsu eta borrokalari bat osatzen dugu gure eskubideak zapalduta baditugu ere.

Zapaldua dugu gure hizkuntza, euskara, eskolak euskalduntzen ez duelako. Zapaldua adierazpen askatasuna, biltzeko eskubidea eta greba eskubidea bezalaxe. Gure herria ukatu eta erdal curriculumak inposatzen dizkigute. Ukatu egiten zaigu gure hezkuntza prozesuan subjektu izatea eta antzerako egoeran daude gure 9 eskubideak.

Baina hau guztia gertatuta ere, erua guri leporatzen digute; gu gara pelikula-ko "gaiztoak", gu gara zuzendaritzek zigortu eta kaleratuak izaten direnak.

Pelikuletako indioak bezalakoak gara kasu askotan. Gure herrian bertan zapalduak garelako. Gure hizkuntzaz trufatu izan dira, gure historia desitxuratu dago, jai egun arratzak inposatu dizkigute... Pelikuletako indioak bezalakoak gara. Duintasunez borrokatzen dugulako. Duintasunez altxatzen gara kolpatzen gaituztenean, duintasunez egiten dugu aurrera trabak jartzen dizkigutenean ere...baina badugu desberdintasun bat pelikuletako indioekin. Guk irabazi egingo dugu. Gure eskubide guztiak errespetatzea lortuko dugu. Historia, esan genuen bezala, guk idatziko baitugu.

Eta honen alde irtengo gara kalera euskal ikasleok Apirilaren 6an. Garena izateko bidean, badugulako zer borrokatu.

Gerra aizkora lurpetik atera dugun honetan, ikasleok borrokarat!

Apirilak 6an, denok kalera!


**ELGOIBARKO IKASLE ABERTZALEAK**



BARRENEK ez du bere gain hartzen IRITZIA eta ESKUTITZAK ataletan adierazitako erantzukizunik. Eskutitzak ondo identifikatuta egon behar dira argitaratu ahal izateko. Ez ahaztu datu hauek jartzea: **izen-abizenak**, **NAN** eta **telefono zkia**.



Argitaratzailea:



Nafarroa enparantza, 2 • 20870 ELGOIBAR  
943 74 41 12 • Faxa: 943 74 37 04  
Publizitatea: 943 74 37 04  
E-posta: [basen@elgoibarkoizama.com](mailto:basen@elgoibarkoizama.com)

LAGUNTZAILEA Elgoibarko Udala **KAZETARIAK** Ainhoa Andonegi, Asier Orbea **PUBLIZITATEA** Eider Iriandio **MARKETATZAILEA** Jaione Uhanue **KOLABORATZAILEAK** Anton Alberdi, Uxue Alberdi, Oihana Apellaniz, Mikel Comejo, Juanito Gorostiza, Amaia Gorroategi, Sare Gumutxaga, Imanol Laranaga, Ainhoa Lendinez, Jesus Mari Makazaga, Ainhoa Mendibil, Ane Odría, Maiolen Olazabal, Iban Urizar, Kokoe KE, Urruzuno, Unai Villena, Alaitz Vives **ESABA ZAHARRA** Gotzon Garateren liburirik **INFRATREGA** Geru **TIRADA** 4.450 ale **LEGE GORDAILUA** SS-1038/92 **ISSN** 1139-1855



Elgoibarko Udalak, Eusko Jaurlaritzako Kultura Sailak eta Foru Aldundiak diruz lagundutako aldizkaria.



## KEXAK

• **Santa Klara auzoko parkea puskatuta dago:** "Ia urte bete pasatu da Santa Klarako plazari konpondu moduko bat egin ziotenetik, modukoa diot, konponketarako erabilitako materiala ez zelako oso egokia izan, aste bete orduko apurtuta baitzegoen. Gaur egun lotsagarri dago. Inguru horretan Tanatorioa dago eta jende asko dabil. Ez al dio Udaletxeari ardura herriak hain itxura txarra edukitzea? Eta obra hori ordaindu egin al zuen? Ea behingoz ganoraz konpontzen duten".



• **Autoek lñigez de Karkizano kalean aparkatzen dute:** "Gabriel Krutzelegi eta lñigez de Karkizano kaleak horma batek bereizten zituen lehen, baina etxe berriak egin zituztenean, horma hori bota egin zuten. Orain autoak lñigez de Karkizanoko etxe aurreraino sartzen dira. Lurra puskatzen ari da, jolasean ibiltzen diren haurrentzat arriskutsua da, askotan auto hauek atzeraka sartzen direlako eta ez dituztelako umeak ikusten, maniobrak egiteko jarlekuak jotzen dituzte, eta kale garbitzaileak ezin du lurra ganoraz garbitu. Udalak pibote batzuk jarriko zituela esan zuen bi kale hauek bereizteko, baina oraindik ez du ezer ipini. Beranduegi izan aurretik jar ditzala, mesedez".



## TXALOAK

• **Kalamua Guraso Elkartekoek San Lorentzorako txirindulari ibilialdian parte hartu zuten guztiak** eskertu nahi dituzte: "Joan zen igandean egin genuen San Lorentzora txirindulari irteera eta jende mordoak hartu zuen parte. Bestalde, antolakuntzan lagundu ziguten guztiari ere eskerrak eman nahi dizkiegu: Lagun Taldea Txirindulari Elkarte, DYA, Elgoibarko Udala eta Kutxa. Oso ondo atera zen dena, eta honek aurrera jarraitzeko animoak eman dizkigu. Hurrengo batean ere, ekitaldiak antolatzen jarraitzeko ilusioz bukatu genuen eguna".

Atal honetarako kexak, txaloak edo galderak helarazteko:

E-posta: [barren@elgoibarkoizarra.com](mailto:barren@elgoibarkoizarra.com)  
Nafarroa enparantza, 2  
20870 ELGOIBAR  
943 74 41 12

## komikia

Hil da gero... *Angela Portero*

Haragia pusketa txikitán, bere saltsa eta mozzarelaekin... hummm... konfunditu egin zarela uste dut. Dena dela, mozzarelarik gabe nahi izanez gero, egingo dugu zerbait.



Kokoe 053

# Gau-eskolatik euskaltegieta 50 urtean

## 1982: Gau-eskolaren azken arnasa. AEK eta HABE.

78-79an sortu zen AEK Euskal Herrian. 1981ean, berriz, Eusko Jaurilaritzak HABE erakundea sortu zuen. Egoera berri honen aurrean, Elgoibarko Izarrako arduradunek garbi ikusi zuten gau-eskolak ez zuela luzaroan jarraituko Elkartearen ardurapean. Beraz, gau-eskola zeinen eskuetan laga erabaki behar zuen Elgoibarko Izarrak. 82ko urriaren 27an egindako batzar batean, honako hiru aukerok bozkatu zituzten gau-eskolako irakasleek, ikasleek eta Elkarteko arduradunek:

- a.- Gau-eskolako fitxak AEKri bidaltzea
- b.- Fitxak HABEri bidaltzea
- c.- Fitxak inori ez bidaltzea eta gau-eskolarekin segitzea.

Botazioan, 24 boto fitxak AEKri bidaltzearen aldekoak izan ziren; 4 boto gau-eskolarekin segitzearen aldekoak; eta, azkenik, 4 abstentzio izan ziren. Beraz, Elgoibarko Izarrako gau-eskola AEKren esku lagatzeko erabakia hartu zen, nahiz eta Elkarteko zuzendaritza bat ez etorri erabakiarekin.

Beraz, Elgoibarko AEK euskaltegiak 82ko azaroaren 11n ikusi zuen argia estreinakoz. Gerotxoago, 1983an, AEK Udalarekin jarri zen harremanetan eta AEK Udal Euskaltegia sortzeko proposamena luzatu zion. Hasieran Udalak proposamena ontzat hartu bazuen ere, HABEko eta Udaleko ordezkariak izan zuten batzar baten ondoren, Elgoibarren HABE Udal Euskaltegia bultzatzea erabaki zuen Udalak. Erabaki honen atzean egon zen zinegotzi batek esan digunez, EAJk eta EEK garbi zuten euskalduntze-alfabetatzea instituzioen esku geratu behar zela. Hau izan zen AEKren proposamena baztertu eta HABEren Udal Euskaltegiaren alde egiteko arrazoia. HB alderdia erabaki honen kontra azaldu zen.

1983ko irailean jarri zuen martxan Udalak HABE bultzatutako Udal Euskaltegia.



**JABI  
AGIRRE**

AEKko  
IKASLE OHIA

*Guraso euskaldunak eduki arren, Jabi Agirrek ez zekien euskaraz. Euskarara ikastea erronka pertsonala zen berarentzat, eta 28 urterekin hasi zen euskaltegian. Gustura dago lortu duen euskara mailarekin, baina bere kabuz, euskarara ikasten jarraitzen duela kontatu digu.*

**• Zergatik hasi zinen euskara ikasten?**

Euskararen hutsunea sentitzen nuen buruan eta gorputzean, eta euskararekin bat egitea nahi nuen. Gurasoak euskaldunak dira, baina nik ikasketa guztiak gazte-leraz egin nituen. Euskararekin bat egin behar nuela erabaki nuen.

**• Zeretik hasi al zinen?**

Buruan baneuzkan euskarazko esaldi batzuk eta maila txiki batean, ulertzeko gaitasuna ere baneukan, baina ez nintzen euskaraz hitz egiteko gai. Nire helburua euskaraz hitz egitea eta hemen integratzea zen. Gustura nago lortu dudana mailarekin, baina gehiago lortzea nahiko nuke.

**• Zer egin zitzaizun zailena?**

Aditzak. Norberak bere teknikak ditu, eta nik neure buruarekin jo-


lasten nuen, sekulako lana eman nion nire buruari, hau da, erderaz ikusten nuen guztia euskaratzen nuen. Telebistazale amorratua ez naizen arren, militantziak bada ere, euskarazko telebista ikusten hasi nintzen. Goenkalen erabiltzen dituzten esamoldeak bameratzen saiatzen nintzen. Euskarara entzuteak asko lagundu dit.

**• Nolako etorkizuna ikusten diozu euskarari?**

Lotsa ematen dit jendearen jarraiek, erdera asko entzuten da kalean. Euskaraz aparte, nire beste pasio bat feria da. Hilero joaten naiz behiak ikusi eta baseritarrak euskaraz hitz egiten entzutera. Haiiek mantentzen dute hizkuntza, baina kalean, nire adineko jendeak oso gutxi erabiltzen du euskarara. Nahiko pesimista naiz.

## ESKERTZA

2006ko martxoaren 22an, 72 urte zituela hil zen **Luis Osoro Larrañaga**ren sendiak, bihotzez eskertzen dituzte jasotako doluminak, hala nola hileta elizkizunetara agertu izana.



## [ AKORDATZEN NAIZ ]



### JOSE MARI BETELU

1932an jaioa

### «Familixia eta kotxia»

**S**emia eta alabia izan genittun. Alabia sei hillabetekin hil zan. Eta semia ere oso gazterik hil zan istripuan. Magisteritza karrera amaittu zaban ekaiñian, eta udazken horretan bertan maixu bezela fijo sartu zan Gasteizko ikastola baten. Nobixia Segurakua zakan, eta haura ere maistra zagan Gasteizen.

Ezkontzeko zauden istripua euki zebeñian. Mendixa gustatzen jakuen asko, eta edurretara jutia pentsau zebeñ. Askotan jutun ziran, baiña egun haura txarra tokau zan. Baionatik Tarbes alderako karreteran, eguraldi txarra, haizia haundixa eta arbola baten kontra jo zebeñ. Bixak hil ziran. Emaztia eta bixok geratu giñan hamentxe. Oin jubilauta gaude. Ahal dan bittartian bixok segi egingo dogu aurrera.

Nik kotxeko kameta berandu etara naban. 72-xa izango zan; 40 urte nakazen.

Beste batzuk ere ikusten nittun, eta kotxe txiki batek autonomia haundixa emango zigula pentsatzen naban. Seisizientosa ekarri gendun, eta gero emaztiak ere etara zaban kameta. Bixok ibiltzen giñan. Oin Opel Corsa txiki bat dakagu eta ondiokan ere konduzitzen dot. Begiko arazuak euki ditut, refinatikan operauta nago eta bildurtuta ibilli naiz, baiña dezente mejorau jata eta ondiokan kotxia hartzeko moduan nago. Rebisiua pasau naban eta ondo nabil.

Egunez bakarrik hartzen dot, ga bez problemak eukitzen dittut.



## [ GURE BERBAK ]

### *Lau urtian / lau urtetan*

Euskaltzaindiaren 110. arauan esaten danarekin bat, zenbatzailledun sintagmetan *Lau urtian* erabiltzia da arruntena, hegoalde ixa osuan bezela, Elgoibarko erabilleran ere; betiere, sintagma horrek adierazten daban denporia etengabeko unitate bakartzat hartzen dan kasuetan. Ez da berdin, izan ere, esatia *Lau urtian egon nitzan Ameriketan* (lau urte jarraixan) eta *Lau urtetan egon nitzan Ameriketan* (honek beste esanahi bat ere euki leike, jeneralian egittura honentzat normalena: lau urte desberdinetan egon nitzala, 1980-xan, 1984-an, 1990-ian eta 1995-ian). Etengabeko denporia adierazteko, esan bezela, *Lau urtian* da normalena:

- *Biarritzen egon nitzan bi urtian.*
- *Hemen egon ziran harek ere? Bai ba; bederatzi hillabetian.*
- *(...) sartu, eta hiru bat orduan euki.*
- *Da oiñ azken aldixan, ba urte askuan, jun daneko hogei urtian edo, makiñakiñ jaizten doguz behixak.*

Euskaltzaindiaren arauan distantzia aipatzen ez bada ere, berdintsu erabiltzen da Elgoibarren halakuetan ere forma mugatua:


- *Atia pixkat zikinduta dauka, baiña hirurogei bat metruan garbi-garbiga dauka harek barrua.*

*Jesus Mari Makazaga*



### ESKERTZA

2006ko martxoaren 26an hil zen *Juan Jose Isasti Gagoren* sendiak, bihotzez eskertzen dituzte jasotako doluminak, hala nola hileta elizkizunetara agertu izana.



### «Publikoak konstantzia eskatzen dio musika talde orori»

Sorkun Rubio, abeslari ezagunak, hamabi urte daramatza musikaren munduan. Kashbad taldean ekin zion bere ibilbideari 90. hamarkadaren erdialdean. Garai hartan, bestelako musika taldeen lanetan ere hartu zuen parte: Negu Gorriak, Joxe Ripiau, Ekon edota Flitter. 1999. urtean berriz, Fermin Muguruzaren "Brigadistak" izeneko diskaren kontzertu biran parte hartu zuen estreinakoz. Europa, AEB ak, Mexico, Japonia eta Txinan barrena bidaiatu ondoren, hiru urte beranduago, bakarkako bere lehen lana plazaratu zuen, "Onna" izenburupean. Abeslari errenteriarak, pasa den irailean kale-ratu du bere azken proiektua "Duna". Orduz geroztik, diskaren aurkezpen biran, buru belarri dihardute Sorkun eta bere bandak.

• **Nola gogoratzen dituzu zure hastapenak?**

Hobby bezala, ekin nion musikaren bideari. Nire koadrilan Kashbad musika taldea zegoen. Betidanik, abeslari lanetan mutil batek jardun zuen, harik eta, emakumezko ahots batekin proba egin nahi zutela jakinarazi zidaten arte. Horrela, proposamenari baiezkoa eman nion. Aurrez sekula ez nuen pentsatu honen arituko nintzenik, nahiz eta kanturako zaletasuna betidanik eraman izan dudana zainetan.

• **Lan handia izan al da musikaren munduan leku bat zeureganatzeak ?**

Bai, lan handia egin behar izan dut, baina, inoiz ez dut jomuga bat ezari. Beti hor egon naiz musikari lehenetsuna emanez, eta merezi izan du.

• **Herrialderen bateko publikoaren erantzunak bereziki arreta deitu al dizu ?**

Bai. Fuyi Rock-en, Japonian. Japoniarrak oso maitagarriak eta esker onekoak dira. Gogoratzen dut Ferminekin buruturiko biran, "Korrika badator" abestiarekin, jendeak nola bizi izan zuen kontzertua, txaloka, dantzan, jau-







«Euskal  
Herriko areto  
eta gaztetxeak  
betetzen ari  
gara,  
jende lepo  
etortzen da  
gure  
kontzertuetara»



zika. Itzelekoa iruditu zitzaidan. Hor joko nuke nire azken proiektuarekin.

• **Zer nolako gaiak jorratzen dituzue abestietan ?**

Nire barneko sentsazioak azaleratzea bilatzen dut: amodioa, desamodioa... Funtsean, beti zerbait agertzea da helburua, gero, bakoitzak bere pelikula egiten du.

• **Somatu al dezakegu ezberdintasun nabarmenik "Onna" eta "Sorkun duna" ren artean?**

Bai. Lehenengo diska, "Onna" oso rok-zalea da, gitarra kaineroekin, eta "Sorkun duna" bestalde, askoz mantoagoa da, pop estilora gehiago hurbiltzen da. Lehen diskarekin alderatuz, bigarren hau, zabalagoa eta irekiagoa da. Musika tresnei dagokionez, aldaketak egon dira, "duna" diskan saxo baritono bat eta teklatuak barneratu baititugu. Dena den, abesti kaineroak ere badauzka.

• **Zer nolako soinua aurki ditzakegu bigarren lan honetan?**

Denetarik. Elektronikatik abiaturiko kantu berrien bidez, rocka, bossanova, soula edo drum&bass, funnkia eta afrobita bezalako soinua aurki daitezke.

• **"Duna" diskaren aurkezpen biraren orain arteko balorazioa?**

Dagoeneko, 50 kontzertu eskaini ditugu 6 hilabetetan. Euskal Herriko areto eta gaztetxeak betetzen ari gara. Jende lepo etortzen ari da kontzertuetara, beraz, balorazioa

oso positiboa da. Urrira arte astebururo joko dugu eta irailean, orain arteko kontzertu kopurua bikoiztea espero dugu. Estatu mailan beriz, Katalunia, Madril eta Galizian kontzertuak eskaini ditugu eta apirilean beriz ere, Katalunia bisitatuko dugu. Agenda oso bete da eta oso pozik gaude.

• **Inoiz pentsatu al duzue euskara ez den beste hizkuntza batean konposatzea?**

Gaztelera ez zait gehiegi gustatzen abesteko. Ingelesa, ordea, bai. Pentsatu izan dut baina, momentuz, hemen, Euskal Herrian ikusten dut neure burua.

• **Zein punturarte da muga euskaraz konposatzea, baldin bada?**

Muga bat baino, handikapa da. Esaterako, Madrilerako joaten naizenean, beti esaten didate, zein diska ona, zeinen abesti politak zeinen zuzeneko potentia, eta zer pena euskaraz abesten duzula; eta gisa honetako komentarioak.

• **Taldekidetaren artean musika gustu berdina partekatzen al dituzue?**

Bai, baditugu erreferente batzuk amankomunean: Kew, Tool, Morfin, Kyss...

• **Nola ikusten duzu euskal taldeen egoera?**

Mugimendua egon badago. Musika talde ugari eta onak daude. Beharbada, batzuetan jendeak ez die kasu gehiegi egiten hasiberiei. Dena den, nire iitzi, publikoak jarraitasun edo konstantzia bat es-

katzen dio musika talde orori. Benetan ikusten badu, lan egiten duzula, kontzertuak eskaintzen dituzula eta zure diska defendatzen duzula, hori eskertzen du eta, ondorioz, jendearen erantzuna ona izaten da. Hala ere, hainbat faktorek eragina dute, gauzak ongi edo gaizki ateratzeko garain. Esaterako, deialdirako duzun ahalmenak. Era berean, aipagarria iruditzen zait, ondokoa: Euskal Herriko taberna ugari ainguratuak geratu dira. Duela pila bat urteko musika taldeak soilik jartzen dituzte; ez legoke soberan, talde berriei ere ezagutarazteko aukera luzatzea. Orohar, jendea eskatuko nioke areta handiagoa prestatzea talde berriei, lan handia egiten ari baitira.

• **Zer eskaini dizu musikak?**

Funtsean, bizitzeko modu bat da niretzat. Askok betetzen nau lanbide honek. Oso bizimodu intentsoa iruditzen zait: kontzertuak eskaini, jende pila bat ezagutu. Gainera, denbora libre dago, astean zehar ez dut goiz jaiki beharrik... Agian ez daukat diru gehiegi, baina, gisa honetara bizitzea gogoko dut.

• **Zein musikarekin gustatuko litzazuke kolaborazioaren bat egitea?**

Anari abeslariarekin. Apirilaren 30 ean jotzen dugu elkarrekin Andoaingo gaztetxean. Oso kontzertu interesgarria da niretzat.

Testua: *Esther Gurrutxaga*

## [ PROTAGONISTA ]



XabierLoiola

Joan zen asteburuan hasi zen Gipuzkoako Hiru Txirlo Bolo Txapelketa. San Rokeko bolatokian izan zen lehenengo jardunaldia, eta bertan, Xabier Loiola elgoibartarra izan zen onena. San Migeldarra 6 txirloekin txapelketako lehenengo postuan sailkatu zen. 69 bolarik hartu zuten parte guztira, eta elgoibartarrek maila bikaina erakutsi zuten: Xabier Loiolaren atzetik, Anjel Ibarluzea sailkatu zen bigarren postuan, Jon Idoeta laugarrena izan zen, Asier Ubera bosgarrena eta Xabier Arrizabalaga seigarrena. Hurrengo jaurtaldia bihar izango da, arratsaldeko 17:00etan Lasturren.

## [ NOTIZIA ]

### 18/98 sumarioa salatzeko batzordea sortu da Elgoibarren

Azken bost hilabeteotan Madrilen burutzen ari den 18/98 sumarioko makroepaiketa salatzeko batzordea sortu da gure herrian. Martitzenean egin zuten aurkezpena. Momentuz 15 lagun inguru daude taldean, baina euren helburua 60-70 pertsona biltzea da. Argi utzi zuten, talde honen atzean ez dagoela ideologia politiko konkreturik eta edonork parte har dezakeela: "Taldea osatzen dugunok ez gatoz bat gure ideologia politiko eta sozialetan, baina guztiok uste dugu Euskal Herria askatasunez eta denon eskubideak errespetatuz eraiki behar dela".

#### Epaiketa zentzugabea

18/98 sumarioan 60 lagun daude errudunen aulkian eserita, eta horien arte-



an, Juan Mari Mendizabal elgoibartarra. Batzorde honetako kideen hitzetan, "zentzugabeko epaiketa da, euskara eta Euskal Herriaren alde lan egiten dutenak dira epaituak". Batzorde honek herritar guztiei egiten die parte hartzeko deia. Aurrera begira, ekitaldi desberinak antolatuko dituzte.

## [ ZENBAKIA ]

# 62.000

Elgoibarko Udalak 62.000 euro erabiliko ditu herriko erdigunean pibote berriak jartzeko. Orain arte eskuz jarri eta kentzen ziren piboteak zeuden herrian,

eta Udalak pibote automatikoak jartzeko asmoa dauka. Plaza Handitik Santa Ana kalera bitartean, San Frantzisko iturri ondoan eta Madalan jarriko dira.

## [ ARGAZKIA ]



Herengun deklaratu zuen Amaldo Otegi Madrileko Auzitegi Nazionalean eta Grande Marlasca epaileak 250.000 euroko bermea jarri dio Batasunako bozeramaileari kartzelatik ateratzeko. Martxoaren 9ko greba eta mobilizazio egunerako deialdia egitea leporatu dio epaileak. Azken bi asteotan etxean egon da Amaldo Otegi neumoniak jota, eta sendatu bezain pronto, Madrilerako deitu zuen epaileak. Hainbat herritarrek euren babesa eskaini diote Amaldo Otegi. Argazkian Amaldo Otegi Madrilerako joateko etxetik atera zen unean.

## IMHk Goazen euskara planaren 2005eko balantzea aurkeztu du



IMHk Goazen euskara planaren 2005eko balorazioa aurkeztu zuen Udaletxean joan zen martxoaren 23an. Marivi Agirregomezkorta Elgoibarko alkatea, Miren Arrate Arrieta Euskara Zinegotzia, Mikel Urdangari Ahize-AEK aholkularitzako kidea eta Joxean Egaña IMHko zuzendaria izan ziren ekitaldian, besteak beste.

### 2005eko emaitzak

Goazen egitasmoa 2003. urtean jarri zen martxan makina-erremintaren sektorean euskararen erabilera sustatzeko asmoz. Ordufrik hona, hainbat aurrerapauso eman

dira. IMHkoen hitzetan, "hiru urte hauetan lortutako emaitzak handiak izan dira eta euskararen erabilera urrats kuantitatibo eta kualitatiboak eman dira". Besteak beste, ondorengoak dira aurrerapauso garrantzitsuenak: 2003an baino 958 zerbitzu-ordu gehiago eskaintzen dira euskataz, (%12ko igoera), 1999an IMHn ez zen eskaintzen formazio eta zerbitzurik euskaraz, 2005ean, ordea, euskara eskaintza %24,3koa zen, idatzizko jardunean ere asko igo da IMHko euskararen erabilera, izan ere, dokumentu laburren %64a euskaraz idatzi baitira.

## [ MOTZ-MOTZIAN ]

### Udan euskara ikasteko familia eskaldunak behar dira

Udan euskara ikasten ari den jendea hartzeko familia eskaldunak behar dira. Helburua euskara ikasleei familia eskaldunetan egonaldiak eginez, ikasitakoa praktikan jartzeko aukera eskaintzea da. Egitasmo honetan parte hartzeko prest dauden familiek apirilaren 25era arte daukate izena emateko epea. Informazio gehiago Euskara Zerbitzuan (943 74 43 66 edo 943 74 44 47).

### Oiartzungo Aurreku eta Soinu Zahar txapelketa

Elgoibarko dantzariak Oiartzungo Aurreku eta Soinu Zahar Txapelketa hartu dute parte, eta emaitza oso onak lortu dituzte. Asier Odriozola 4. postuan sailkatu zen, Itoitz Vitores 10. postuan eta Alberto Loiola 11. postuan. Nerea Badiolak 2. postua lortu zuen. B sailean, Dorleta Fernandez izan zen irabazlea eta Maria Ferreirak 2. postua lortu zuen.

### 80 lagun San Lorentzorako bizikleta itzulian

Herri Eskolako Guraso Taldeak bi urtean behin antolatzen duen San Lorentzora bizikleta itzulia izan zen igandean. Aurtengoan herri guztiko ume eta gurasoei egin zitzaizkien parte hartzeko gonbitea, eta guztira, 80 txirrindulari inguru bildu ziren. Parte hartzaile guztiek opari bat jaso zuten helmugan, eta ondoren salda eta txorizoa jateko aukera izan zuten.



## 30 urte bete ditu Danobateko euskarazko hiztegitxoak



Azken urteotan euskararen erabilera bultzatzeko lanean dihardute Danobaten. Besteak beste, errotulazioa, dokumentazioa, informatika arloa, jendearen euskararengana motibazioa landu dituzte, eta langileen ekimenez, Hiztegi Tekniko bat argitaratu zuten 2003an, eta 2004an Tailerrek Eskuliburu teknikoa. Bi hauek [www.danobat.com](http://www.danobat.com) helbidean kontsultatu daitezke. Hala ere, duela 30 urte eman ziren euskara bultzatzeko pausoak Danobaten. 1976ko martxoaren 27an kaleratu zen, hain zuzen ere, gaztele-ra-euskara hiztegi teknikoa. Gaur egungo erabilerarako zaharkituta dagoen arren, du-darik gabe, balio handiko altxor txikia da.

Gazte Asanbladakoen esanetan, Elgoibarren 600 etxe huts baino gehiago dago.

## Beharrezkoa al da Elgoibarren etxe berriak eraikitzea?

**AINZANE SANCHEZ**  
Etxekoandrea  
57 urte



“Bai, herriko etxe zaharrak oso zaharrak dira eta inork ez du etxe zaharrean bizi nahi. Inbertsio handia da eta ia prezio berean jendeak nahia-go du etxe berria.”

**DINA AMEDA**  
Etxekoandrea  
52 urte



“Ez, nik zaharra erosi dut orain eta berritzen ari naiz. Denok nahi dugu berria, baina ezin da. Hutsik dauden etxeak erostea aukera ona izan daiteke.”

**JOSE RAMON GARCIA**  
Pertsianagilea  
35 urte



“Ez, hainbeste etxe huts egonda ez dago berrien beharrik. Etxe zaharrak prezio on batean saldu beharko lirarteke. Etxea erosteko erraztasunak eman behar dira.”

**MONTSERRAT SANDOVAL**  
Etxekoandrea 47 urte



“Bai, baina Babes Ofizialekoak egin beharko lituzkete. Gazteak ezin dira etxetik joan. Etxe zaharrak daukaten prezioarekin hobe da berria erostea.”

## [ BAI ala EZ? ]

Eragiten al dizu ordu aldaketak?

**BAI %64**

“Egia esan, ez dakit horregatik edo asteburuan egindako parandengatik izango ote den, baina bai, zizko eginda nabil zapatutik.”

**EZ %36**

“Ez. Ez dut igartzen ordu aldaketaren eragin haundirik, eta iluntzea luzatzeak, berriz, bizi-poza ematen dit. Udaberriak indarra ematen du.”

Datorren asterako... **Santa Ana kaleko aparkalekua kendu dute etxeak egiteko.**  
**Ikusten al diozu irtenbiderik Elgoibarren daukagun aparkatzeko arazoari?**

Bidali SMS bat:

**BARREN** (espazioa) ERANTZUNA

**7505** zenbakira


SMS kostua: 0'90 € + B.E.Z.-a.



Hurrengo hilean 2 pertsonentzako zirkuito bat zozketatuko dugu **Kresala hotelean**. Zenbat eta erantzun gehiago, aukera gehiago!  
[www.aisiahoteles.com](http://www.aisiahoteles.com)

# ETAren su-etena Elgoibarren

Azken egunotako albisteak ETAren su-eten iraunkorra izan da. Martxoaren 22an izan genuen honen berri, eta ordu-tik aurrera, pil-pilean dagoen gaia da. Gaurkoan, su-etenak gure herrian izan duen eragina jaso dugu gehigarri honetan. Alor eta sektore desberdinetako lagunen iritzia, Mikel Alberdi preso ohiari elkarrizketa bat eta ETAk Elgoibarren egin dituen hilketak gogoratu ditugu lau orrialde hauetan.



**Mikel Alberdi,** ETAko preso ohi

## «Euskal presoen egoera berehalakoan aldatu beharko litzateke»

Itxaropentsu eta pozik aurkitu dugu Mikel Alberdi, ETAko preso ohi. Lehenengo su-etenaren berria kartzelan zegoela jaso zuen, eta oraingoak gehiago poztu duela aitortu digu. Euskal preso politikoen egoeraz jardun dugu batez ere, eta bere ustez, presoak Euskal Herrira ekartzea ezinbestekoa da.

• **Zer sentitu zenuen su-etenaren berria jaso zenuenean?**

Sekulako poza. Denon buruan zebilen gai hau azkenaldian. Prentsak eta politikoen adierazpenek su-etena iristeko aukera zegoela esaten zuten, baina ETA ez da honelakoengatik mugitzen; barne hausnarketa eta gatazkan inplikaturako alde guztiak aztertu ondoren ematen ditu pausuak, eta horrek gehiago poztu nau.

• **Su-etenaren ondorioz euskal preso politikoen egoera aldatuko al da?**

Euskal preso politikoen egoera berehalakoan aldatu beharko litzateke. Agintariek esan dutenez, ekainera arte ez da neurririk hartuko, eta hori ulertezina da. Su-etenak lasaitasuna ekarri du sektore askotara, baina presoek senideak euren bizitza arriskatzen jarraitzen dute errepidean. Beste norbait hil behar al da pausuak ematen hasteko? Txantajeak eta presoek eragiten dieten erabaki politikoa alde batera utzi eta dispersioarekin amaitzeko unea iritsi dela uste dut.

• **Presoen senideentzako une hobeak iritsiko al dira?**

Baietz uste dut, baina presioa egiten jarrai dezatela eskatuko nieke, eta gure laguntzarekin preso guztiak etxera ekartzea lortuko dugu, uste dutena baino askoz lehenago. Prozesua benetakoa da.

• **Kartzela barruan nola hartu ote dute albisteak?**

Azken urteotan Estatu Espainiarrak euskal presoek baldintzak gogortzeko lan handia egin du. Hau guztia euskal presoak gogor daudelako egiten dute, hau da, Estatuko Politika eta askatasuna lortu arte, euren duintasuna mantendu egingo dutelako. Su-eten iraunkorraren berria poztasunez, baina kontrolpean hartu dutela uste dut, uneoro euren lekuan mantentzen jarriko dute.

## «Sekulako poza sentitu nuen ETAren su-etenarekin»

• **Aurreko su-etenak kartzelan harrapatu zintuen. Desberdina izan al da?**

Villabonako kartzelan nengoen orduan, Asturiasen, eta asko poztu nintzen, baina ez neukan arazoa konponduko zeneren itxaropen handiegirik. Oraingoan konfiantza gehiago daukat eta amaierara iristeko aukera handiak daude.

• **Zein dira, zure ustez, hemendik aurrera eman beharreko pausoak?**

Lasaitasuna eskatuko nieke orain arte ezer gutxi egin eta orain puntan jartzea nahi dutenei. Sektore guztiak dira beharrezkoak, inor ez dago soberan, pausuak ez dituzte PSOE eta EAJk bakarrik eman behar.

• **Gertuago ikusten al duzu bakea?**

Dudarik gabe, baina ez dago hain gertu. Bakea ez da ekintza amatuaren falta bakarrik: herrien eskubide eta autodeterminazioaren errespetua da, preso politikorik ez egotea, auzitegi bereziak deusestea, ideia jakin batzuen kontrako sumarioak ez egotea, ejerzitorik, Guardia Zibilik eta gure herriaren nahia zapuzten duen polizia atzeritarrik ez egotea. Hau guztia lortzeko asko falta da oraindik.

• **Eta normalizazio politikoa?**

Bide onean goaz, baina oraindik ideiak zapaltzen dizkiguten legeak indarrean daude; komunikabideak itxita, alderdi politikoa ilegalizatuta... PSOE eta PPrentz muntaia honek gainontzeko Udalen babesaren izan du. Elgoibarren ere ederki poztu ziren batzuek euren boto gehiago izango zituztelako. Udalarik Einbournen jarlekuak libratzeko eskatuko nieke, hori da gure herriko normalizazio politikoa jarri beharreko lehenengo harria.

# 1. Zelan jaso zenuen ETAren su-etena?

## HASIER ETXEBERRIA

Idazlea



1. "Poz handiz. Hala ere aitortu behar dut, ez nauela euforiak bizi. Askoz gehiago poztu nintzen aurrekoarekin eta, akaso, hura eta gero jasotako dezepzioagatik, barruak ez dit lagatzen hainbeste poztzen."

2. "Nire ustez faxismoaren atzaparrak sartuegi daude sisteman, epaileak eta horiek guztiak ez daude alferrik dauden lekuan jarrita. Esan nahi dut sistema bera ez zaidala begitantzen guztiz demokratikoa eta gure politikariak ere ez direla gai kaka zahar hori konpontzeko. Ondorioz, ez digute lagako geure buruaren jabe izaten. Inposatutako Konstituzioan dago karkoa eta aurrerago ere hortxe segituko du, espainolak salbatzen dituen koltxoneta hori baita gu azpian hartu eta itotzen gaituena. Patatekin irentsi beharko dugu eta zerbait irabazi izan bagenu bezala ibili trenbidean txistuka, baina funtsean ez dute gure herriaren tamainari dagokion erabakia hartzen lagako. Beste batzuen borondateak aginduko du gure bizitzetan. Sentitzen dut hain ezkorra izatea, baina hainbeste atsegabe eta apurtutako itxaropen ezagutu ondoren, nahiago dut neure burua babestu, alferrikako ilusiotan ibili baino. Hobe bai, oker banengo!"

## KENYA REINOSA

Elgoibarren bizi den kubatarra



1. "Izugarri poztu nintzen. Bost urte dararamatzat Elgoibarren, eta terrorismoaren gaiak asko kezkatzen nau. Ez zaizkit gerak eta bonbak gustatzen."

2. "Egoerak hobera egingo duela uste dut, lasaiago biziko gara denok. Beti izaten nuen niri edo alabari zerbait gertatzeko beldurra, baina orain lasai aterako naiz kalera. Agintari politikoei tokatzen zaie orain pausuak ematea, ETAk eman du lehenengoa, oso inportantea."

## BENANTZIO OTAEGI

Elgoibarko parrokoa



1. "Itxaropenez eta lasaitasun sentsazio batekin. Baketze eta adiskidetze prozesuan pausu garrantzitsua izan da."

2. "Guztion arteko gizarte bizikidetzara erakitzeak aukera ezin hobea dela uste dut. Guztiontzat zuzena eta baketsua izango den gizartearen eraikuntza demokratikoa gidatzeko erantzukizuna dute une hauetan agintariek eta ordezkari politikoei. Lan neketsua eta luzea izango da seguruenik. Kristauei bakearen alde otoitz egiteko dei egiten diegu, bake giroa bultzatzeko ahalegina egitea."

## IÑAKI INTXAUSTI

Jubilatuaren Egoitzako presidentea

1. "Oso pozik hartu genuen, guretzako bakea da munduan dagoen gauzarik handiena. Esperantzaren bat bageneukan, eta urte honetan etorriko zela espero genuen."

2. "Egoera aldatuko denaren esperantza badaukagu, edo behintzat aldatzen hasiko dela uste dugu. Kontrario asko dauzkagu eta prozesu luzea eta motela izango da. Aitortzen ez duten arren, Madrilen askori ez zaio interesatzen ETA desagertzea, bestela, aspaldi kenduko zuten!"



## 2. Eta hemendik aurrera, zer?

### KRISTINA URRUTIA

Madriren bizi den elgoibartarra



1. "Asko poztu nintzen baina nire inguruan dagoen jendeak ez du asko sinisten, betikoa pasatuko dela uste dute. Ez da erraza kanpoan bizi eta hemengoek gauzak esplikatzea."
2. "Ez dakit zer gertatuko den aurrerantzean, baina nik esperantza handia daukat; Euskal Herriarentzat bakea iritsiko dela uste dut."

### SUSANA MUJICA

Kazetaria



1. "Hasperenka, eta erdi lo nituen hainbat sentazio berriz ere bizitzen."
2. "Buruak esaten duena eta bihotzak nahi duena uztartzeko orduan, pazientzia. Bereziki, prozesuan parte hartuko dutenek, izan beharko dute, errealitate desberdinak daudenez, pazientzia, errespetua eta erantzukizuna"

### JOSU MUJICA

Dantza irakasle eta koreografoa



1. "Aulestian nengoen eta beti joaten naizen taberna bateko ugazabak esan zidan. Asko poztu nintzen. Denbora zen zurumurrua entzuten zela eta azkenean egiaztatu egin zen."
2. "Denon artean guk espero dugun herria, etorkizuneko Euskal Herria, erakitzeke aukera izatea espero dut, denon artean izan behar duela azpimarratu nahi nuke eta ez bakar batzuren artean. Eta gu izango gara erabakiaren jabe eta buru. Hau lortzeko egoeran gaude la dirudi, ezin da gehiago eskatu, urte luzetan egon baikara honelako aukera baten zain. Ia orainoan, benetan, gauzak ondo egiteko aukera daukagun eta betirako ahazten dugun gure historiako garai bat."

### GUMERSINDO VILA


Galiza Etxeko presidentea

1. "Lehen erreakzioa ezustekoa izan zen eta ondorengoia zuhurtzia: prozesu luzea izango da, hartu eman askokoa, eta apurtu ez dadin zuhurtzia handiz jokatu behar da. Desio eta itxaroten genuen albistea izan zen. Azken aldiko prentsako adierazpenak lerro artean irakurri gero, zerbait egosten ari zitekeela iragarri zitekeen. Galiziako zenbait egunkaritatik ere deitu ziguten Galiza Etxera gure iritzia eskatzeko."
2. "Umea jaio da eta hazten laga behar da. Aurrerapauso asko eta atzerapauso gutxi izatea espero dugu. Ia 40 urte ostean, ez da bi elkarrizketatan plit-plast konpontzeko kontua, amaieraren hasiera baizik. Alabaina, emaitzak bizkor ikusten hasiko garela uste dut; presoen hurbilketa... dena ez da konponduko, baina aldean arteko hurbilketa egongo den itxaropena dut. Zerbait konpontzeko borondatea dagoela frogatu behar dute aldeek."



### JESUS MARI MAKAZAGA

Unibertsitateko irakaslea



1. "Oso pozik eta baikor. Holako notiziekin PP-ko jendia eta, liskarra dala-ta, interes ekonomiko eta politikuak daukenak bakarrik tristetzen eta hasarratzen dira."
2. "Hemendik aurrera, poliki-poliki, benetako politikia egin beharko da, ETaren presiuak baldintzatu gabeko politikia. Oin ikusiko dira politiko eta alderdi baikoitzen benetako intenziuak zein diran. Oin ez dago aitzakirik. Herritarrok ez dogu onartuko edozer gauza, hainbeste urteren eta eztabaidaren ondoren, nahi-nazkatuta eta etsita bagaude eta."

## UXUE ALBERDI

### Unibertsitateko ikaslea



1. “Sorpresaz eta pozik Azken asteetako gertaera larrien ondoren (Angulo, Sainz, martxoaren 3a...) eta Ertzaintzaren eta alderdi gehien erantzuna ikusita, ez nuen espero: ausarta iruditu zitzaidan. Poza eta energia ematen du gauzak mugitzen ari direla ikustekak.”

2. “Hemendik aurrera ikusiko da bakoitza zer emateko prest dagoen, orain ez dago aitzakiarik eta baldintzarik.

Euskal Herrian dugun sakoneko arazoari begira jarri eta akordio eta ekintza konkretuak egiteko garaia dela uste dut. Beti hitzek ez dute balio.”

## PEDRO AGIRREGOMEZKORTA

### Enpresaria



1. “Lagun batek bidalita Korreo elektronikoko bitartez jakin nuen 11:50 inguruan. Ilusio beldurgarria egin zidan, une batez hotzikarak ere nabaritu nituen. Mezuzaren eta su-etenen fidabilitateaz zalantza egin nuen hasieran. Gero ikusiko da, baina orain artekoak baino gorputz eta eduki gehiago nabari diot su-eten honi.”

2. “Alderdi politiko, agente sozial, enpresari... mundu guztiak ETAren mezu hau aintzat hartu eta ilusioz ekin behar diote lanari. Euskal Herriak min asko jasan du, biktima asko dago... eta horiek ere parte hartu behar dute, egon den aukerarik onena baita. Euskal Herriko ekonomia-erantzutza ere une aproposan iritsi da su-etena. Datozen 5-10 urtera begira arazo handiak izango baititugu konpetibitate alorrean. ETAk ziurgabetasuna sortzen du eta honek ezinezona eta agresibitatea dakartza. Su-etena eta bakeak hemen beti izan ditugun inizatiba handiko jendeari lasaitasunez lan egiten lagako dien itxaropena daukat. Jose Maria Korta zenaren esaldi bat ekarri nahi nuke gogora: “Bakea behar degu, bakeak ez dauka preziorik. Ez degu lortzeko beldurrik eduki behar. Bidean hanka sartu dezakegu, baina erruak onartu eta aurrera egin behar da”

Beste bi hilketak ere izan ziren gure herrian, baina hauek Komando Autonomoek egindakoak izan ziren. Gogora ditzagun:

## ETAk Elgoibarren hildakoak

- **Anjel Berazadi:** 1976. urtean Sigma enpresako gerentea zen Anjel Berazadi hil zuen ETAk Elgoibarren. 20 egunez bahituta egon ondoren, buruan tiro bat zuela agertu zen Berazadiren gorpua Azkarateko errepide zaharrean.
- **Jose Exposito:** 1985eko abuztuaren 4an Jose Exposito Guardia Zibila hil zuen ETAk. Eguerdian aldean pasiaran zebilela tiro bat jaso zuen buruan eta bat-batean hil zen. 62 urte zeuzkan, ezkondua zegoen eta lau seme-alaben aita zen.
- **Sebastian Aizpiri:** 1988ko maiatzean hil zuen ETAk Sebastian Aizpiri elgoibartarra. ETAko Eibar Komandoak hartu zuen hilketa hau beregain. Txaltxa taberna inguruan jarritako auto-bomba batekin hil zuten.
- **Patxi Zabaleta:** 1988. urteko ekainean, San Frantzisko kalean tirokatu zuten Patxi Zabaleta elgoibartarra.

### Oharra:

Beste bi hilketak ere izan ziren gure herrian, baina hauek Komando Autonomoek egindakoak izan ziren. Gogora ditzagun:

- **Anselmo Durán:** 1978. urteko urrian Anselmo Duran izeneko Guardia Zibila hil zuten. Kuartelera bidean zihola, Artekaleko eskaileretan tirokatu zuten metrailera batekin. Zazpi tiro aurkitu zizkieten gorputzean. Ospitalera eraman zutenerako hilda zegoen.
- **Jaime Arrese:** Elgoibarko alkate izan zen Jaime Arrese. 1980. urteko urrian hil zuten. Iriondo tabernan kafea hartzen ari zela, buruan tiro egin zioten. Lurrera erori eta bat-batean hil zen. 44 urte zituen, ezkondua eta bi seme zituen.

## ETAren biktimen testigantza

Su-etinari eskainitako gehigarri honetan ETAren biktima baten testigantza jasotzen ahalegindu bagara ere, antzua izan da gure ahalegina. ETAk hildako hiru lagun senitartekoekin egon gara, baina gai honen gainean ez dutela berba egin nahi esan digute. Gai hau oso mingarria dela eta asko sufritu dutela esan digu biktima batek. Beste batek, berriz, hilketa gertatu zenean etxekoei min handia egin zirela azaldu digu, eta orain nahi duten gauza bakarra dena ahaztea dela. Azkenik, su-etenen gainean iritzia badaukatela, baina ez dutela publiko egin nahi esan digu beste biktima batek.



[ GOMENDIOA ]



**Olatz Beitia**

**OLATZ FISIOTERAPIA**

Fisioterapeuta

**Jolas bat!**

**A**utoan ibiltzen zaretenok begiratu goizean barruko erretroisoreari eta iluntzean berriz ere. Beti egiten dugun keinu bat igarriko duzue, jaitsi egiten dugu. Begiratu ispilu handi batean goizean daukagun postura eta iluntzean daukaguna. Begiratu ispilura halako tristura bat daukazunean. Zer nolako postura daukazu? Eta alai zaudenean? Begiratu ispilura min duzunean eta alderatu minik ez duzuneakoarekin.

Batzuk makurrak gara, beste batzuk tenteak; batzuk lepoa aurrerantz daramate eta beste batzuk lurrari begira dabilta, asko zerura begira dabiltzan bitartean. Mila postura, milaka pertsona, milaka izaera, hainbat emozio eta beste hainbat arazo bakoitzari bere gorpuzkera ematen diote-

nak. Gorputzeko minak ez dira denontzat berdinak, denok ez garelako berdinak eta denok berdin tratatzea akats bat izango litzateke. Egunak ezberdinak dira bakoitzarentzat eta emozioak ezberdin jasaten ditugu, janariak eta kirolak bezala.

Beste jolas bat! Kalean eseri eta jendeari begiratu. Ikusten dena oso polita edo tristea izan daiteke; bakoitzak bere postura eta bere ibilera dauka bere ohiturak dituelako. Aldatzea norberaren esku dago ohiturak ez direlako beti egokienak baina beti pozik biziz, eta osotasunaren akatsik balez, bakoitzak bere puntu ahulak hobeto ditzake. Bakoitza ezberdina dela ohartzea lan erdia egiten laguntzen digu eta bidea erraztu arazoa konpontzeko.

Ondo pasa jolasean.

[ OSASUN GIDA ]



**MEDIKUNTZA ALTERNATIBOAK**

Kemen Belardenda

(Medikuntza naturala, F. de Bach, masaia, makrobiotika, janari biologikoak, nutrizio eta osasun ikastaldiak)

San Bartolome, 25 • Tel: 943 74 40 31

Egunero: 9:00-13:00 / 16:30-20:00

Sanatana Dharma Yoga Elkarte

Urasandi, 9 • Tel: 943 74 85 93 (Idoia) / 685 722 131

Astearte eta ostegunetan: 10-11:30/15-16:30/18-19:30/20-21:30

**Mendaro**

Astelehen eta asteazkenetan: 10-11:30/15-16:30

Astelehen eta ostegunetan: 20:00-21:30

**OPTIKAK**

Ikus Optiko-optometrista

San Bartolome, 10 • Tel: 943 74 37 34

Egunero: 9:30-13:00 / 16:30-20:00

Uzuri

(Optometria, tonometria, kontaktologia, audiometria)

San Frantzisko, 21 • Tel: 943 74 03 59

Egunero: 9:30-13:00 / 16:30-20:00

**ORTOPEDIAK**

Itziar Sarasketa

San Frantzisko, 12 • Tel: 943 74 35 62

Egunero: 9:30-13:00 / 17:00-20:00

**HORTZ KLINIKAK**

Irale

Errosario Kalea, 7 behe (Elgoibar) Tel: 943 74 36 79

Zeharkalea, 8 behe (Ermua) Tel: 943 17 71 34

e-posta: [irale@irale.com](mailto:irale@irale.com) - weba: [www.irale.com](http://www.irale.com)

Nora Bastida

Azpilgoeta, 5 (MENDARO) Tel: 943 03 35 75

Astelehenetik ostiralera: 9:30-13:00 / 15:30-19:30

**FISIOTERAPIA**

Ainhua Fisioterapia

Eragozpen fisikoa egongo balitz etxeko zerbitzua eskeintzen da.

Tel. 943 53 19 53 / 669 565 745 (15:00-21:00)

Jausoro, 6 behe

Olatz Fisioterapia

(Minarentzako tratamendua, erredukazio posturala, prebentzioa, erlajazioa, masaia, reiki)

San Roke, 1 - Tel. 696 821 149

Egunero: 9:00-13:30 / 15:00-20:00

**PODOLOGOAK**

Iñaki Rivero

San Bartolome, 28 • Tel: 943 74 32 90

Ostegunetan: 9:00-12:00 / 15:00-19:30

Oinberri

Errosario kalea, 25 • Tel: 943 74 17 95

Astearte, ostegun eta ostiraletan: 9:00-13:30 / 15:00-19:30

**Gidan agertu nahi baduzu, deitu 943 74 37 04ra**

## ELGOIBARKO HERRIA INSTRUMENTU TALDEEN V. LEHIAKETA

### I. Bereziartua Musika Eskolako bi taldek sari bana irabazi zuten

**E**uskal Herri guztiatik etorritako 200 musikarik parte hartu zuten Elgoibarko Herria Instrumentu Taldeen V. Lehiaketan. Musika Eskolako auditorioa txiki geratu zen musikari gaztetxoek interpretazioak entzuteko. Gaztetxoek mailan (12 urtera arte) "Txikis Band" donostiarrek nagusitu ziren eta bigarren postuan "Txistu Brass & Company" talde instrumental elgoibartarra sailkatu zen. Sorotan Bele taldearen "Arratsalde honetan" pieza jo zuen Iban Gonzalez, Joanes Etxabe, Julen Tabira, Iosu Atxa, Gorka Bereziartua, Imanol Iturrino, Maialen Solabarieta eta Ane Inigezek osatutako taldeak. 16 urtera artekoen mailan leioako "A tempo" taldea izan zen epaimahaikoek gustukoena eta 20 urtera artekoen mailan, berriz, "Ozen Brass Band" legazpiko taldeak jantzi zuen txapela. Elgoibartarren bigarren saria "Arko"



taldeak eskuratu zuen. Garazi Aiesta, Maria Hernandez, Ruben Irigoien, Amaia Gorrotxategi, Maitane Moreda, Elorri Irusta, Izaskun Esnaola, Iosu Abad eta Andoni

Lersundik osatutako taldeak instrumentu aniztasunaren saria irabazi zuen. Biolin, biolontxelo, perkusioa, pianoa, gitarra eta ahotsa erabili zituzten "Arko" taldekoek.

### "El Florido Pensil" antzezlanaren 7an iritsiko da Herriko Antzokira



"El Florido Pensil" antzezlan ezagun eta arrakastatsua taularatuko du Tanttaka Teatroa antzerki taldeak apirilaren 7an, datorren barixakuan, Herriko Antzokiko oholza gainean. Andres Sopenak idatzitako testuan oinarritutako lanak gerra osteko Espainiako hezkuntza sistema irudikatzen eta kritikatzeko du, umore eta ironia puntuaz. Tanttaka Teatroaren moldaketa honek Frankoren diktadura garaiko ohiko klase baten egunerokoa erakutsiko digu, besteak beste. Mutilkoskor taldeak aritme-

tikako klase gogorrei eta erregimenak ezarri nahi zien ideologia faxistari aurre egin beharko diote. Auzoko zinea, etxeko irratia, eliza eta prentsa edo tebeoak ere frankismoaren ideien barreiatzaileak izango dira. Aktoreak ere ezagunak dira: Kike Diaz de Rada, Jose Ramon Soroiz, Paco Obrego... Antzezlanaren gaueko 22:15ean hasiko da. Sarrerak aurrez eros daitezke, goizez Klutura Sailean eta arratsaldean, Gazte Informazio Gunean (Kultur Etxeko 2. pisuan) 8,5 eurotan.

#### ELGOIBARKO IZARRA Kultur Elkartearen

### BAZKIDEEN URTEKO BATZAR OROKORRA

#### Aztergaiak:

1. Lehendakariaren agurra
2. 2005eko memoria eta balantze ekonomikoa.
3. 2006ko helburuak eta aurrekontua.
4. 2006-2008 urteetarako bazkide-kuota.
5. Galdera-erantzunak

#### Eguna:

- Apirilak 3, astelehena

#### Ordua:

- 19:00

#### Tokia:

- Kultur Etxeko hitzaldi gela

Elgoibarko Izarrako bazkide guztiok zaudete gonbidatuta. Azalduko zareten esperantzarekin,



## XIII. JOSE GURRUTXAGA KROSA

# Elgoibar eta Mendaroko 490 haur izango dira domekan J. Gurrutxaga Krosean

**E**lgoibar Ikastolak urtero antolatzen duen Jose Gurrutxaga krosaren XIII. edizioa domekan, hilaren 2an, jokatu da. Goizeko 11:00etan hasiko dira lasterketak Plaza Handian. Guztira, Elgoibarko eta Mendaroko 490 haurrek hamalau lasterketatan banatuta parte hartzea espero dutela adierazi dute antolatzaileek. Kaleak antxintxikariz beteko dira, hortaz. Partaide guztiek domina eta sariak jasoko dituzte, eta 1995. urtean jaiotakoetatik aurrera, hau da, LH 5. mailatik gora, lehen postua lortu duten neska eta lehen mutilek trofeo bana jasoko dute. Benjamin mailako parte hartzaileek trofeorik ez jasotzea kirol arloko lege berri batek ezartzen du, izan ere, Gipuzkoako Foru Aldundiari eskatu behar zaio adin honetako haurrentzako kirol ekintzak egiteko baimena eta horietxek dira jartzen dituzten baldintzak.



## Eskola Kiroleko Gipuzkoako Txapelketako partidak asteburuan



Datorren asteburuan Minisaskibaloiko Gipuzkoako Txapelketa jokatzeko dira alebin mailako neska-mutil elgoibartarrak. Alebin mutiletan Mendaroko 6. mailako taldeak jokatu du partidua zapatuan, goizeko 10:00etan Ikastolan eta Herri Eskolako alebin mailako neskek, berriaz, gaur arratsaldean (18:00) jokatu dute partidua; biek Deba Goienako taldeen aurka. Bestalde, alebin eta benjamin mailako gainontzeko taldeak Mintxetan Areto Futbolearen eta Kiroldegian Minieskubaloian jokatzeko jarraituko dute Aste Santuko oporrak iritsi arte. Eta oporretatik bueltan hasiko dira Areto Futboleko eta Minieskubaloiko Gipuzkoako Txapelketako partidua.

## Olaizaga Kiroldegiaren Aste Santurako ordutegia

Elgoibarko Udal Kirol Patronatuak Olaizaga Kiroldegiak Aste Santuko jai egunetan izango duen ordutegiaren berri eman du. Honakoa izango da egun

hauetarako ordutegia: eguen, barixaku, zapatu, domeka eta astelehen santuan Kiroldegia 9:00etatik 13:00etara irekiko da.

## [ EMAITZAK ]

### FUTBOLA

Haundi 0 - Sestao 3 (3. maila)  
Sto. Tomas 4 - Elgoibar 2 (1. erreg.)  
Elgoibar 0 - Antiguoko 1 (Jub.)  
Beti Ona 2 - Elgoibar 3 (Kad.)  
Elgoibar 1 - Real Union 1 (Inf. A.)  
Zarautz 3 - Elgoibar 2 (Inf. B.)  
Lagun Onak 4 - Elgoibar 1 (Neskak F-8)

### ESKUBALOA

Bidasoa 28 - Tecnifuelle 29 (Senior mut.)  
Gatz Museoa 27 - Pneumax 26 (Jub. mut.)  
Umobitza 28 - Usurbil 23 (Kad. mut.)  
Tecnomeca 20 - Gatz Museoa 26 (Kad. mut.)  
Lojantzi 24 - Ereintza 24 (Sen. mut.)  
Urola 11 - Cometel 24 (Jub. nesk.)  
Jauja 17 - Pagoaga 10 (Kad. nesk.)

## [ AGENDA ]

### FUTBOLA

Mintxetan  
Zapatua, 1  
13:30 Elgoibar - Hondarribia (Inf. B.)  
15:00 Elgoibar - Anaikak Bat (Kad.)  
17:00 Elgoibar - Ilintza (1. erreg.)  
19:00 Elgoibar - Amaikak Bat (Neskak)

### ESKUBALOA

Kiroldegian  
Zapatua, 1  
13:00 Aterpe - Zarautz Aiala (Inf. nesk.)  
17:30 Pneumax - Aloña (Jub. mut.)  
19:00 Tecnifuelle - Baracaldo (Senior mut.)  
Domekia, 2  
10:00 Umobitza - Aloña (Kad. mut.)  
11:45 ANTT Softlan - Arikutz (Kad. mut.)

### ESKU PILOTA

Ikastolan  
Debarroko Txapelketa  
Barixakua, 31  
21:45 Lagunak - Arrasate (Jub.)  
Udaberri Txapelketa (Finalaurrekoak)  
Barixakua, 31  
22:30 Lagunak - Murumendi (Senior)  
Debarroko Txapelketa  
Domekia, 2  
12:00 Lagunak - Eibar (Senior.)

## [ IDARRAGA SARIAK ]

### IDARRAGA KAFAK 9. SARIA

HAUNDIko jokalaririk erregularrena 05/06

Jokalaria	Puntuak
1. David Morais	62
2. Navarrete	48
3. Iribar	39
4. Guinea	31
5. Arruti	30
6. Etxabe	23
7. Loren	20
8. Alex del Rio	19
9. Iker Martinez	17
10. Kerman	17

## IÑAKI KONDE TRIATLETA

### «Lur jota joan nintzen Hegoafrikako Ironman proban parte hartzera»

*Hegoafrikako Ironmanean parte hartzetik itzuli berri da Iñaki Konde. Porth Elizabethen, Hegoafrikako hiri nagusienetakoan egon da, Indiko Ozeanoaren kostan, Lurmutur Hiritik 500 kilometro ekialderantz. Gauzak ez zitzaizkion nahi bezala atera eta parte ez hartzekotan ere egon zen arren, bukatzea lortu zuen. Kondek 10 ordu eta 42 minututan amaitu zuen proba. Ironman hitzak burdinazko gizona esan nahi du eta ezin aproposagoa da distantzia luzeko triatleta hauek egiteko gai direna ikusirik. Iñaki Kondek kirol proba gogor hau prestatzeko jarraitu beharreko hainbat aholku eta sekretu kontatu dizkigu.*

► **Zergatik Hegoafrika? Gertuago ez al zegoen Ironman-ik?**

Europan egiten diren Ironman gehienak eginda dauzkat, batzuk errepikatuta ere bai. Egingabe dauzkanen datak, beriz, ez ziren egokiak aurten parte hartzeko. Honez gain, Hegoafrikako Ironman-a, Afrikan dagoen bakarra, egokia iruditu zitzaidan. Gainera, baziren 3 urte Ironman batean parte hartu gabe nengoela eta aurtengo martxoan 55 urte bete behar nituela eta... parte hartzera animatu nintzen.

► **Etxean nola hartzen dute zure afizio hau?**

Hegoafrikara nindoala esan nienean ondo iruditu zitzaien eta parte hartzera xaxatu ninduten. Beti animatu izan naute eta beraiei esker ateratzen dut entrenatzeko indarra.

► **Ironman bateko distantziak ez sinesteko modukoak dira. Nola prestatzen da kirolari bat; 3,8 km. igerian, 180 km. bizikleta gainean eta maratoni bat (42,195 km.) antxintxika egiteko?**

Ez dago prestakuntza konkretu bat, bide edo modu ezberdinak baizik. Norbere ahalmenak ezagutzea funtsezkoa da eta horren arabera bide bat edo beste aukeratu. Dena dela, Ironman batean bukatzea ('finisher' ingelesez) izaten da lehen helburua. Antolakuntzako partaideen indarrak eta probaren filosofia printzipio horretara zuzenduta daude. Norbere buruarekin borroka egitean dago proba honen handitasuna. Halere, badago frogia bukatzeko ordu-muga bat ere.

► **Ingurukoak gaituzte dute helburu beste batzuk baino?**

Bai, halaxe da. Gainerako parte hartzaileekin lehiatzea edo denbora jakin bat lortzen ahalegintzea beste gauza bat da eta prestakuntza ere ezberdina da. Bukatzea soilik desio nahi izanez





**Iñaki Konde Hegoafrikako Ironman probako bi unetan.**

gero, distantzia luzeak egin behar dira. 3 eta 5 hilabete arteko epean presta daitezke. Distantzia motzekin hasi eta poliki-poliki luzatzen joatea da gakoa, betiere gorputzari berreskuratzeko tartea lagata. Egokiena asteburuetan bizikleta eta korrika egitea da eta astean zehar igeri eta korrika probak uztartzea. Triatloiak prestatzeko arazorik handiena probak egiteko beharrezko denbora da. Horregatik, astebururako lagatzen ditugu ordu gehien eskatzen dituzten probak. Astean behin edo birritan atseden hartzea ere komenigarria da. Adibidez, astelehenean ordu bat igerian eta ordu eta erdi korrika; zapatuan ordebete igerian eta 4 edo 5 ordu bizikletaz, eta domekan 5 edo 6 ordu bizikletaz eta 1 edo 2 ordu korrika. Dena dela, norbere sentazioak kontutan hartu behar dira. Okerrena gogorik gabe edo nekatuta entrenatzea da, norberak ikusi behar du entrenamenduak luzatzean gorputzak nola erantzuten duen.

► **Eta bukatzea baino zerbaiz gehiago nahi badugu?**

Erloju edo arerio baten kontra egitea ezberdina da. Esfortzu proba bat hasteko komenigarria izango litzateke analitika bat egitea eta ondoren kontrolatzea. Entrenamendu guztiak pultsometroarekin egin behar dira. Norberaren muga aerobikoa ezagutu eta neuri horietara egokitu behar dira entrenamendu orduak. Serieak ere egin behar dira, lagunekin lasai-lasai ibiltzera irriteak ez duela balio konturatzeko baitzara. Bakardadea oso gogorra

egiten da eta negua bada are gogorragoa. Hilero test modukoak egitea ere komenigarria da. Ia bakarrik egiten dira entrenamendu gehienak eta oso egoskorra izan behar da, arazo fisikoak eta psikologikoak gainditu behar baitira. Elikadurak garrantzia handia hartzen du, anemia eta antzerako gaixotasunei aurre egiteko.

► **Horrelako froga bat ez al dago giza ahalmenetik haratago, ez al da astakeria bat?**

Hutsetik hasiz gero, noski! astakeria bat izan daiteke; alabaina, ez dut uste inor zerotik hasten denik.

**«Gogorik gabe eta nekatuta entrenatzea da okerrera»**

► **Negu gogorrean entrenatu beharra izan al da oztoporik handiena?**

Oro har egindakoaren balorazio bat egiterakoan, eta nituen helburuak lortzeko, akats handiena hori izan zela uste dut. Negu gogorra izan da eta zapatu eta domeketan saio gogorrenak egin behar nituenez, askotan hotzarekin gogortuta sentitzen nuen nire burua, entrenatzen jarrait-

zeko gorputzaldirik gabe. Hortaz, programaturakoa ezin beti bete. Gabonetatik aurrera katarro pare bat ere izan nituen eta azkeneko asteetan gripea ere bai. Afrikara joan nintzenean, beste bi oztopo gainditu behar izan nituen: gaizki entrenatzearen ondorioz kalte fisikoak eta psikologikoak. Oso lur jota joan nintzen, parte hartu edo dena bertan behera lagatzeko zailtzan. Bertan, antolakuntzak jartzen dituzten medikuei nire egoera azaldu nintzen, ez ateratzea hobe zela aholkatu zidaten arren, familiakoan laguntzari esker irteera erabaki nuen.

► **Zein da 3 kiroletatik gustukoena eta hobekien moldatzen zarena?**

Igeri egitea eta bizikletan ibiltzea dira gustukoena. Korrika da, ordea, hobekien moldatzen naizen proba

► **Bakarrik joan al zinen? Turismoa egiteko aukerarik izan al zenuen?**

Joseba anaiak eta bere emazte Anak lagundu zidaten; beraien bultzadari esker atera nintzen proban. Oso lagungarriak izan ziren, batetik, moralala altxatzeko, eta bestetik, gauzak antolatzeke. Hauek bai egin zuten turismo pixka bat, nik ez nuen aukerarik izan. Adibidez, animalien parkeak ikusi zituzten, eta oso ondo zeudela komentatu zidaten. Neuk ere bizikletako proban laupabost tximino ikusi nituen errepidean zeharkatzen, Ironman baterako oso exotikoa. Marrazorik ere ez genuen ikusi eta bertako txarteletan delfin asko daudela iragarri arren, guri ez zitzaigun bat behera ere bistan jarri.

## [ ETXEBIZITZAK ]

### SALMENTA

- ▶ Pisu salgai Mendaron. Eguzkitsua, dena kanpora. 3 logela, sukalde, bi komun, bi garaje eta trastelekua. **635 20 79 01**
- ▶ Pisu salgai Bernardo Ezenarro kalean. 2 logela, garajea eta trasteroa. Berria. Prezio interesgarria. **606 71 56 77**
- ▶ Etxea salgai Errosario kalean. Guztiz berria. 168.200 euro (28 milioi pezeta). **943 748448/636571111**
- ▶ Etxea dalgai Bernardo Ezenarro kalean. 3 logela, trasteroa, komuna, sukalde eta egongela. **677 43 71 12**
- ▶ Errosario kalean etxebizitza salgai. 3 logela, sukalde, egongela, komuna, despentsa eta ganbara. **943 74 42 05**
- ▶ Pedro Muguruza kalean etxea alokatzen dut. **636 27 72 82 (18:00-21:00)**

### ALOKAIRUA

- ▶ Pisu txikia alokatzen da erdialdean. **616 111 603**

- ▶ Pisu berria alokatzen da Santa Klaran, "Residencial Mirador". Sukalde, egongela, bi komun, 3 logela, 40m<sup>2</sup>ko terraza. **655 72 3678 (20:00-21:00)**
- ▶ Apartamentua alokatzen da Torrevejan. Igerilekuarekin eta hondartzatik 800 metrora. Hiri erdigunean. **628 58 45 35**
- ▶ Logela bat alokatzen da. **635 20 64 36 (10:30-12:30 edo 19:00etatik aurrera)**
- ▶ Pisu osatzeko pertsona bat behar da. **610 45 85 52**
- ▶ Logela alokatzen da, komunarekin. **618 81 39 70**
- ▶ Pisu alokatzen da Conilen (Cadiz), Bateles hondartza ondoan. Jantzita eta aire egokituarekin. **680 44 26 68**
- ▶ Mutila behar dut pisua alokatzeko. Sukalde eta logelarekin. San Antolin 6, 3.ezk. **645 70 77 00**
- ▶ Gizonezkoa etxea konpartitzeko prest Elgoibarren. **697 78 52 78**

## [ GARAJE eta LOKALAK ]

- ▶ Garaje marraduna alokatzen da Pista Beltzean. **943 74 43 98/943 74 00 70**
- ▶ Garaje itxia alokatzen da Trenbide kalean, 17-19 zenbakian. **943 74 24 50**
- ▶ Urasandi kalean, Altzari almazaren azpian, garaje marraduna salgai. **943 74 24 56**
- ▶ Marradun garajea alokatzen da Ametsa parean. **615 78 78 57**
- ▶ Garaje marraduna alokatzen da Pista Beltzean. Bi auto kabitzen dira. 60 euro. **699 81 25 66**
- ▶ Marradun garajea salgai Santa Ana 6an, Ametsa parean. **615 70 78 57**

## [ AUTOAK ]

- ▶ Opel Kadet 1.600 autoa salgai. Egoera onean. 500 euro. **620 13 59 58 (Inma)**
- ▶ BMW 320D autoa salgai. 136 zaldi. SS-BD. Egoera oso onean. **639 65 40 27**

## [ BESTELAKOAK ]

- ▶ Sukalde salgai: bitrozeramika, labea eta mepansa. Oso merke. **647 626 693**
- ▶ Telebista handi bat salgai. **943 74 09 80**
- ▶ Bizikletarako eruberak salgai. Mavik Cosmic Carbon. 2005. urtea. 850 euro. **943 03 37 24**
- ▶ Lur saila erosiko nuke bide edo errepide batetik gertu. Hektarea bat inguru. **661 181 622**

## OHARRA

Salmentarako eta alokairurako iragarkiak ordaindu egin behar dira. Iragarkiak lau astetan agertuko dira. Etxeak, lokalak eta garajeak: salmenta 12 € eta alokairua 8 €. Autoak 8 €. Eta bestelakoak 5 €. Asteazken eguerdia baino lehen. Tel.: 943 74 37 04

## LANA

### ESKAERA

- Gizona lanerako prest. **678 89 84 29**
- Kamarero moduan lan egiteko prest. Euskaraz dakit. **620 04 94 20**
- Emakumea lanerako prest, egunez edo gauzez. Esperientzia dut. **943 17 28 96**
- Gizonezkoa lanerako prest: eraikuntzan. Alikatatzen, tabikatzen eta makinaria erabiltzen dakit. **645 70 28 31**
- Gizonezkoa lanerako prest: eraikuntzan edo pintore moduan. **606 612 834**
- Emakumea umeak edo nagusiak zaindu edo garbiketa lanetarako prest. **676 623 843/943 53 08 03 (Romina)**
- Emakumea umeak edo nagusiak zaintzeko prest. **636362251/646235195**
- Mutila asteburuetan lan egiteko prest. **686 475 563**

- Emakumea garbiketa lanak egin edo nagusiak zaintzeko prest. **943 53 12 70**
- Emakumea garbiketa lanak egin edo nagusiak zaintzeko prest. **639 88 20 04**
- Emakumea lanerako prest, interna edo externa moduan. **943 53 15 53**
- Neska garbiketa lanak egin, nagusiak edo haurrak zaintzeko prest. **680 327 674**
- Neska lanerako prest. **676 444 171**
- Emakume gaztea tailarrean edo garbiketa lanak egiteko prest. **628 684 435**
- Mutila peoi bezala lan egiteko prest. **943 53 15 53/678 342 297**
- 4 neska propaganda banatzeko prest. **610 95 34 34**
- Emakumea garbiketa lanetarako prest. **639 42 34 93**
- Emakumea garbiketa lanetarako, nagusiak edo umeak zaintzeko prest. **606 64 22 84**

- Mutila kamarero, tailerreko laguntzaile edo garbiketarako prest. **660 92 75 66**
  - Emakumea garbiketa lanetarako, nagusiak edo umeak zaintzeko prest. **660 92 75 66**
- ### ESKAINNTZA
- Umea zaindu edo pisua osatzeko emakumea behar da. **666 03 27 15**
  - Mutil euskalduna behar da aroztegian lan egiteko. Gida baimena. Esperientziaduna. **943 03 34 66 (CV bidali faxez)**
  - Asteburuetan Txuri-Beltz tabernarako kamareroa behar da. **943 74 0228/943 7407 45**
  - Kamareroa, neska zein mutil, behar da tabernan lan egiteko. **943 74 16 00**
  - Asteburuetarako kamareroa behar da. **695 72 37 36**
  - Begiraleak behar dira 7 eta 14 urte bitarteko haurrentzat, uztailean ingeles udalekuetarako. **943 71 20 55**

- Sukaldari eta kamareroa behar da. Esperientzia. **943 74 12 30**
- Kamareroa eta sukaldari laguntzaile behar dira asteburuetan lan egiteko. **943 03 01 50**
- Basko Rent enpresak kotxeak garbitzeko pertsona bat behar du. **902 10 32 87**
- Ametsa tabernarako kamareroa behar da. Ostiral, larunbat eta igandetarako. **943531035**
- Esperientziadun estetiziana behar da Elgoibarren. (21:30etik aurrera) **653 701 647**

### ABISUAK

- Txaleko bat aurkitu dut San Bartolome kalean. Jabeak deitu dezala. **943 74 29 38**
- Haizeak txamarra berdea eramantit balkoiatik, San Roke kalean. **943 74 44 45**
- Karitasek jaioberrientzako jantziak eta kotxe kapota behar ditu. **943 74 15 09**

## [ ZORIONAK ]



▶ Zorionak **Maialen!** Apirilak 3an, urte bat beteko dituzulako. Aita, ama eta etxekeo partez.



▶ Zorionak **Julen**, atzo, osteguna, bi urte egin zenituelako. Familiakoen eta bereziki, aitxixa-amamen partez.



▶ Zorionak **Igor** apirilaren 6an, 5 urte egingo dituzulako. Gorka, Esther eta familiakoen partez.




▶ Zorionak **Felix** bihar, hilak 1, urteak egingo dituzulako. Zure lagunen partez.



▶ Zorionak **Jon** atzo 7 urte egin zenituelako. Muxu handi bat familiakoen partez.



▶ Asko jan genuen zure urtebetetze egunean. Zorionak **Haritz** ilkastolako laguntxoan partez.



▶ Zorionak **Asier** bihar, hilak 1, 4 urte beteko dituzulako. Jarraitu mutil zintzoa izaten. Familiakoen eta bereziki, Maialenen partez.  
▶ 10 egun, 7, 5, 3... azkene-



an iritsi da! Zorionak **Leire** 10 urte biribil betetzerakoan. Muxuak guztion partez.



martxoak 30, urteak egin zenituelako. Familiakoen partez.



ren 29an urteak egin zenituelako. Familiakoen partez. Aupa Athletic.



potolo bete dituzulako. Muxu handi asko familiakoen partez.



bukatu bezain pronto, zure urtebetetzea! Zure familiakoen partez muxu haundi bat.


▶ Zorionak **amabix** atzo,

▶ Zorionak **Julen** martxoak

▶ Zorionak **Julen** 4 urte

▶ Zorionak **Beñat** Martxoak

▶ Ez gara ahaztu, eh? zorionak eta milaka txokolatezko muxu ilkastolako laguntxoan partez.



**Emakume, gizon eta haur erropak**

**Zure bizitzako  
une bakoitzerako  
egokituak**

**Tel.: 943 85 07 36**  
**Julio Urkijo, 24**  
**AZKOITIA**

**Etoz eta ikus!**

# Zerbitzuak



## [ OKINDEGIA ]



2 igandea FOTERO



## [ FARMAZIAK ]

- 31** **GUARDIA** 24 ORDUZ  
**1** Zabaleta  
**2** Etxeberria (Errosario)  
**3** Etxeberria (Errosario)  
**4** Ibañez  
**5** Bidasolo  
**6** Etxeberria (Santa Ana)  
**7** Fernandez  
 Yudego

\* Beti dago guardiako farmazia Eibar/Ermua zonaldean.

### KANPOKO FARMAZIAK

**IBAÑEZ**  
 Rekalde, 1 Soraluze.  
 Tel: 943 75 16 38

**FERNANDEZ**  
 Herriko enparantza 4, Garagarza.  
 Tel: 943 75 61 42

**ZABALETIA**  
 Kalebarren, 9 Soraluze.  
 Tel: 943 75 13 84



## [ AUTOBUSAK ]

### ELGOIBAR - DONOSTIA

**Astegunak:** 7:10, 7:40, 8:10, 9:00, 10:40, 13:40, 14:00, 14:40, 15:00, 15:40, 16:00, 18:40, 19:05, 20:00, 20:40

**Larunbatak:** 7:10, 9:00, 10:40, 13:40, 14:00, 15:00, 18:40, 20:00

**Igandeak eta jaiegunak:** 9:40, 10:30, 13:40, 18:40, 20:00, 20:40

### DONOSTIA - ELGOIBAR

**Astegunak:** 6:15, 7:00, 8:15, 9:30, 12:00, 12:30, 13:30, 14:30, 15:00, 17:30, 18:30, 19:30, 20:45.

**Larunbatak:** 8:15, 12:00, 12:30, 15:00, 17:30, 19:30, 20:45

**Igandeak eta jaiegunak:** 12:30, 17:30, 19:30, 20:45.

**PESA:** 902 10 12 10

### ELGOIBAR - MENDAROKO OSPITALA

**Astegunak:** 6:15, 6:40, 6:45, 7:35, 8:15, 8:45... ordu erdika. Azkena; 20:45.

**Asteburuak eta jaiegunak:** 7:15ean hasita, orduka. Azkena; 20:15.

### MENDAROKO OSPITALA - ELGOIBAR

**Astegunak:** 6:55ean hasita, ordi erdiro. Azkena 21:55.

**Asteburu eta jaiegunak:** 7:55ean hasita, orduka. Azkena, 21:55.

**EUSKOTREN:** 943 74 04 42

## [ 31 BARIXAKUA ]

### 17:30 KIRIBILKA PROGRAMAREN AURKEZPENA

Plaza Handian

2 urtetik 6 urte bitarteko haurrentzat. (euria bada, hurrengo ostiralera atzeratuko litzateke)  
 Antolatzailea: Elgoibarko Izarra K.E.



**CORDON VILARCHAO**

**DEKORAZIOA**

Korpo eta barneko estaldura  
 Zoluen kolokazioa  
 Lakedata: egur, aluminio, P.V.C.  
 Pintura orokorra

San Roke, 7 behea  
 Pol. Olaso - Olasope kalea, 18 - 25 eta 26 modulua  
 Tel. 943 740 678





**PINTURAK**

PEDRO PEREZ BERISTAIN

Xixilon, 2 3.sotua 943 74 36 52 - 74 27 89

**KOMUNITATEAK ETA FATXADAK - BERRIZTATZEAK - PINTAKETA**





**Gosariak  
 Pintxoak  
 Bokatak  
 Plater konbinatuak**

Astelehenetik ostiralera irekita goizeko 7etatik aurrera  
 Larunbata eta jaiegunak goizeko 8etatik aurrera

Pedro Muguruza, 5 Tel.: 943 74 38 11 / 943 74 08 06



## [ 1 ZAPATUA ]

### 16:00 BILBAOKO MANIFESTAZIORA JOATEKO AUTOBUSA

Leloa: "Konponbide garaia da:  
Euskal Herria, erabakia,  
adostasuna"  
Irteera: Plaza Handitik

## [ 2 DOMEKIA ]

### 11:00 XIII. JOSE GURRUTXAGA HAUR KROSA

Irteera eta helmuga: Plaza  
Handian  
Antolatzailea: Elgoibar Ikastola

## [ 6 EGUENA ]

### 19:00 GAZTE TOPAGUNEKO BATZARRA

Kimetz Elkartean

## [ 7 BARIKAKUA ]

### 17:30 KIRIBILKA PROGRAMA

Plaza Handian  
2 urteik 6 urte bitarteko  
haurrentzat. (euria bada, hurrengo  
ostiralera atzeratuko litzateke)  
Antolatzailea: Elgoibarko Izarra K.E.

### 22:15 "EL FLORIDO PENSI!"

#### ANTZEZLANA

Taldea: Tanntaka Antzerki Taldea  
Herriko Antzokian

# ZINE

## KARTELDEGIA

### ELGOIBAR HERRIKO ANTZOKIAN

#### «Munich»

31, barixakua: 22:15  
1, zapatua: 19:00-22:15  
2, domekia: 19:00-22:15  
3, astelehena: 21:30  
«Txirri, Mirri eta Txiribiton»  
26, domekia: 16:30  
«Sud Express» (Z.K.)  
6, eguena: 21:30

### EIBAR, UNZAGA

#### «Ice Age II»

31, barixakua: 19:30-22:15  
1, zapatua: 17:00-19:30-22:15  
2, domekia: 17:00-19:30-22:15  
3, astelehena: 19:30-22:15  
4, martitzena: 19:30-22:15  
5, eguaztena: 19:30-22:15

### EIBAR, RIALTO

#### «Instinto Basico II»

31, barixakua: 19:30-22:15  
1, zapatua: 17:00-19:30-22:15  
2, domekia: 17:00-19:30-22:15  
3, astelehena: 19:30-22:15  
4, martitzena: 19:30-22:15  
5, eguaztena: 19:30-22:15

BARREnek ez du gerta litezkeen  
emaldien aldaketan erantzukizunik.

## «Munich»



Zuzendaria: Steven Spielberg.  
Antzezleak: Eric Banc, Daniel Craig.

1972ko irailean aurrekaririk ez zuen atentatu  
terrorista telebistaz zuzenean jarraitu zuten 900  
milioi ikusentzulek. Munich-eko Joko Olinpikoetan  
gertatu zen: Irail Beltza izeneko muturreko talde  
palestinarra Hirri Olinpikoan sartu, Israelgo talde  
olinpikoko 2 kide hil eta 9 baitu zituzten. 21 ordu  
geroago amaitu zen borroka latzaren emaitza  
sarraski odoltsua izan zen. Munduak lehen aldiz  
zuzenean ezagutu zuen izua, baina ezer gutxi  
aireratu zen atentatu haren ondorioetat.

## «Sud Express» (Zine Kluba)

Zuzendaria: Chema de la Peña y Gabriel Velázquez

Antzezleak: Gerald Morales, Tino Guimarães,  
German A. João.

Parisetik Lisboaara doan trenaren barruan sei perso-  
na anonimoren bizitzak nola elkar gurutzatzen di-  
ren kontatzen digu fikziozko dokumental honek. Tre-  
na bizirik eta mugimenduan dauden emozioen,  
sentipenen, metafora bilakatuko da. Europa konti-  
nente zaharreko bizilagunek beraien artean dituz-  
ten antzekotasun eta ezberdintasun handiak azale-  
ratuko dituzte pertsonaiek.

# Atzera hegira



**1958**. urteko uztailearen 26an ateratako erretratu zahar hau **Ines Intxaustik** laga digu. Azaldu digunez, "Lerun-Txikira joaten ginen futbol partidak ikustera eta gero bertan, Lerun-Txiki aurreko zelaietan merendatzen genuen. Maritxu Arrietaren gurasoak bizi ziren Lerun-Txiki baserrian, bere aita, Eusebio Arrieta fabrikako enkargatua zen". Ikus dezagun nortzuek osatzen zuten lagun koadrila hau:

Zutik, ezkerretik eskumara: **Elena Intxausti, Julian Azkue ( ), Justa Intxausti ( )**.  
Erdiko ilaran, ezkerretik hasita: **Pilar Arrieta, Pilar Irusta, Mari Tere Pedrosa, Maritxu Arrieta eta Ines Intxausti**.  
Eserita, ezkerretik hasita: **German Pedrosa, Migel Arrieta eta Kontxita Irusta**.



## ESKERTZA

2006ko martxoaren 17an, 85 urte zituela hil zen **Mari Carmen Arriola Gurrutxaga**ren sendiak, bihotzez eskertzen ditu jasotako doluminak, hala nola hileta elizkizunetara agertu izana.



## I. URTEURRENA

2005eko martxoaren 28an hil zen **Antonio Unzueta Iriandren** oroimenez urteurreneko meza izango da, igandean, apirilak 2, eguerdiko 12:00etan Parrokian. Joango zaretanoi eskerrak aldez aurretik.



# Jaika

jaletxea



- Eguneko menua
- Menu bereziak 16'50 €-tik
- 25 - 30 lagunentzako jangela
- 6 - 8 lagunentzako jangela pribatua

Pedro Muguruza, 27 behea • Tel.: 943 74 10 29

## UDALEKUAK 2006. ASTE SANTUA



### Udaleku irekiak.

**Notz:** Apirilak 18, 19, 20 eta 21  
**Norentzat:** Haur Hezkuntza 3-4-5,  
Lehen Hezkuntza 1-2-3  
**Ordutegia:** 10:00etatik 13:00etara  
**Prezioa:** 25 €



### Udaleku itxiak.

**Notz:** Apirilak 18, 19, 20, 21 eta 22  
**Norentzat:** Lehen Hezkuntza 4-5-6  
**Non:** Aubixan  
**Prezioa:** 65 €



### Udaleku itxiak.

**Notz:** Apirilak 18, 19, 20 eta 21  
**Norentzat:** DBH  
**Non:** Orioko aterpetxean  
**Prezioa:** 65 €

**IZENA EMATEKO:**

Martxoaren 27tik apirilaren 7ra.

Informazioa gehiago:

**ELGOIBARKO IZARRA KULTUR ELKARTEA**

Ubitarte 4 • 20870 ELGOIBAR

943 741626 (Nagore) • [nagore@elgoibarkoizarra.com](mailto:nagore@elgoibarkoizarra.com)

Antolatzaileak:



ELGOIBARKO IZARRA  
KULTUR ELKARTEA



Ayuntamiento de  
ELGOIBAR



GAZ-T  
AISIALDI TALDEA



Elgoibarko  
Udala



Foru  
Aldundia




Fuskua  
Jauriantza

ANTZERKIA



*Apirilak 7, ostirala  
22:15ean  
Herriko Antzokian*



KULTURA GAILA



FORU ALDUNDIA



EUSKO JAURLARITZA



SAREA



ANTZERKI MUSIKALA



**Apirilak 9,  
igandea  
16:30ean  
Herriko Antzokian**